

Manhattaneko apunte batzuk

2009ko maiatza.

Aniztasunaren hemizikloa

Hemizikloaren dentsitateak apur bat zorabiatu egiten du. Mundu osoko jatorrizko herrietako ordezkariak eta estatuetako ordezkariak areto berean. 600 pertsona inguru. Nazio Batuen Erakundeak antolatutako Munduko Herri Indigenen gaiaren biltzarra.

Giza espeziearen aurpegikera guztiak areto bakar batean ikusteak halako zirrara bat sortzen dit. Azalaren gama guztiak, artikoko *samiën* zuritik sabanako *masaiën* beltzera. Aurpegien aldaera guztiak, borobiletik zorrotzera. Hala gertatzen da jantziekin ere. Erdiak inguru mendebaldeko ohiko jantziz edo gorbataz, eta gainerakoan artean, inoiz burutik pasa gabeko arropa eta apaindura-aniztasuna. Jatorrizko herrian dotoretzat duten indumentariak etorri dira ordezkari asko, eta mozerro festa baterako okurritzen ere zaila den plantak gurutzatzen dira hemen, txaketa, soineko, manta, turbante eta kate, luma eta txapelen artean. Ez da erraza herri baten dotorezia-sena ulertzea, baina bada denetan zerbait ederra, jantzi landuok estetika naturalak sortutako barietateak balira moduan.

Pentsatzen egon naiz, une honetan hemiziklo honetan dagoen mundu-ordezkaritza osatzea une historikoari dagokiola. Hamarkada hauetara arte, inoiz ez ziren areto batean elkarrekin bilduko hainbeste herri. Bidaiatzea ezinezkoa zelako, eta posible izan denean ere, estatuak direlako bildu eta ez jatorrizko herriak. Eta baliteke hemendik hamarkada batzuetara ere, ordurako posible ez izatea, bestelako arrazoi bategatik: jatorrizko herrietako batzuk galduak izango direlako.

Igurtziak

Ospa dezagun bada giza-espeziearen festa bailitzan, hitzaldien, bat-bateko itzulpenen eta aurikularren errito planetario hau.

Inguruko pertsonetikiko igurtzia goxoa da gehienetan. Ez du ematen denekin egoteko aukerarik. Hasieran ingurukoekin portunatzen da mintzatzea, aurrerago joango gara nahi ditugunen bila. Txinak konkistaturiko mongoliarrekin zaude orain, geroxeago tuareg-ekin. Bakoitzak badu bazterketa bat edo genozidio bat kontatzeko. Euskaldunez mintzatzea tokatzen da norbere burua aurkezterakoan. Nik uste baino gehiagok kokatzen gaitu munduan. Bada Pirinioen bi aldetako herri txiki horrenganako halako enpatia bat.

Mailysen mintzaldia

Gaika inskribatu behar da hitz egiteko aukera izateko. Eta bakoitzari gehienez bost minutuko tartea uzten zaio, zorrotz kontrolatuta.

Audreyk badaki hemen mugitzen. Inskribatzeko izapideak egin eta lortu du bost minutuko tartea, iparraldeko egoera hemizikloan azaltzeko. Mailysek hartu du hitza, une horretan taldeko gazteenak. Eskuan dardara baina ahotsean kuraia, zuzen eta indartsu transmititu du iparraldeko egoeraren kexa.

Ez nuen arreta hori gertatzerik espero. Aurreko hizlari askorekin baino isiltasun handiagoa sortu da, aurpegiak atzera begira, kamara batzuk beregana. Bukatutakoan txaloak, hitzaldi batzuk bakarrik biltzen dituztenak. Jende dezente etorri da Mailysi kuraia ematera eta irakurri duen testua eskatzera.

Ez dira denak pozik. Urko Espainiako delegazioaren ingurura joan da, zer sumatuko Mailysen hitzaldiaren unean. Eskuekin keinu ukatzaileak eginez eta elkarri buruarekin batera eta bestera eraginez ari ziren gure estatukideak. Hitzaldian, izan ere, bukaera aldera terrorismoaren aitzakiapean iparraldeko gizarte zibilak jasaten duen kriminalizazioa ere aipatu du, eta Espainiako torturaren aipamena ere egin du.

Ez zuten besterik behar, nonbait. Espainiak, apur bat lehenago, bere bost minutuko interbentzioa egin zuen, herri indigenen alde egiten duen lana mundu osoaren aurrean agertuz. Esan digutenez diru asko jarri du Espainiak NBEko Foro hau antolatzeko, eta interes berezia du denen aurrean herri indigenen mezenas moduan agertzeko. Hartara etorri, eta gainera iparraldekoen kritika entzun behar alajaina. Eta haiek bildu gabeko txaloak –inork ez baitio txalorik egin Espainiako gobernuaren mintzalditxoari-, Mailysek bildu.

Kontraerasoa

Ez da momentuan erantzunak emateko aukerarik. Mahaiko presidentek Viet Nameko ordezkaria ere isilarazi egin du, bertako jatorrizko herri bateko erbesteratu batek egindako salaketei erantzuten saiatu denean. Baina arratsaldearen bukaeran bai, erreplikarako aukera zabaldu dute, beharbada espainiarren mugimenduak tarteko.

Hartu du ba hitza Espainiako gobernuak. Iparraldeko herriak erantzunez zuzen-zuzen. Espainiak giza eskubideak zorrozki betetzen dituela aldarrikatu du, eta batzuek (ondo ulertu da zeintzuk) jatorrizko herriekin loturarik izan gabe foroa interes politikoetarako erabiltzea salatu du. Salaketa serioa da. Ez du txalorik bildu, eta mahaiko presidentea erantzun diplomatiko bat ematen saiatu da.

Beste beldur bat piztu zaigu, ordea. Pertsonen mugimenduak sumatu ditugu, eta baliteke Espainia presio egiten saiatzea euskal delegaziorik hurrengo urteetan izan ez dadin. Pertsona batzuek esan digute Espainia dela ekitaldi honetarako diru gehienetako bat jarri duen estatua. Eta Nazio Batuen Erakundea, azken finean, estatuen erakundea da. Lur labainean sartu garela dirudi.

Sintomak

Hurrengo egunean panorama itsustu zitekeela zirudien. Espainiak presioa egin ote zezakeen hurrengo urteetan euskaldunen presentzia blokeatzeko? Sintoma batzuk baziren pentsatzeko gure presentziaren gaia bazebilela hemizikloko zirkulu batzuetan. Hainbat jende zetorkigun, edo gu aurkeztean zioten “bai, badakit, euskaldunak, ez?”. Frantziako ordezkariak Urko eta ni nor ginen galdetu zion Mailysi.

Ahalegin komunikatiboa areagotu genuen apur bat, nik behintzat Frantziakoarekin, antolatzaileetako batekin eta beste jatorrizko herri gehiagorekin. Urko eta iparraldekoak ere, bakoitza bere aldetik ari dira jendearekin egoten.

Garabideren ponentzia laburra ere inskribatzea lortu genuen –iparraldeko taldearen izenean-. Ez zuen denborarik eman, ordea, gai-ordenan aldaketa batzuk tarteko, gure hitzaldirako. Hassan izeneko marokoarra etorri zait esan behar genuenaren testua eskatzu. Alarma piztu zait, Hassan hori Foro Permanenteko kideetakoa baita eta Clavero katedratikoarekin hizketan ikusi dugu. Gure presentziaz debatea dagoelako eskatu ote digu testua? Ingelsezko itzulpena txukundu (nik txukundu...) eta bulegora joanda espreski beretzako inprimatuarazi dut kopia hobe bat. Sorpresa: begien konexioa sentitu dut papera ematerakoan. Eskuarekin besotik heldu nau, eta galdetu dit ia dokumentu horretan Foroko Permanentearantzako gomendiorik egiten dugun. Ba bai, egiten dugu gomendio zehatz bat bukaeran, hizkuntzen berreskurapenaren gaia urteroko gai iraunkorretan sartzea. Erabat ados dagoela esan dit, eta elkarrizketatxoia izan dugu inglesez-edo, hizkuntzaren garrantziaz eta egoeraren larritasunaz. Testua mesfidantzaz eskatu zidala uste eta hara, bestelakoa gertatu. Aliatu egokia izan liteke.

Baliteke aurrera begira presioak izatea gure presentziaren kontra, baina aldekoak gehiago direla iruditu zait azken sintometan. Gune honetan urteoro egotea lortuko bagenu, lan ederra egin liteke epe ertainera, bai Garabideren helburuei begira (bata, mezu globaletan eraginez, eta bi, kontaktuak biderkatuz) eta bai euskal herriaren bisibilitateari eta nazioarteko harremanei begira. Aurten ia errebotez etorri gara. Hurrengo urtean lan eginda eta tresna komunikatzailez kargatuta etorri beharko genuke.

Mamiaz

Mundu osoko herriak biltzen dituen agora pribilegiatu honetan, entzuten den mintzoa kamuts sentitzen dut. Gogorra zait hau sentitzea, gizatasun hunkigarria baitabil hemen inguruan, eta hainbeste pertsonarekiko igurtzia begirune eta maitasunezkoa baita, gizatasunaren mintzo-festa honetan. Baina nire arranguran, oinarrizko zerbaite falta zaie herri indigenen diskurtsoei: erantzukizuna, ardura-hartzea.

Egunetan zehar, dozenaka eta dozenaka ordezkari hartu dute hitza, bost minutuko komunikazio idatziak irakurtzeko. Ia denetan doinu bera. 'Eskubide' delakoen aipamena. Egoerari buruko kekek. Ardura eskatzeak, eta halako duintasun-erakuste lauso bat.

Non da gogoeta? Non dira egin behar dugunari buruzko kekek? Non dira esperientzien kontakizunak? Non dira porroten aipamenak? Non dira zalantzen aitortpenak? Non autokritikak? Non dira estrategiei buruzko eztabaidak?

Azken hauek dira gure eguneroko jardunean – Andoni datorkit gogora, horretan erradikal-ditugun aldarte-gidariak, oinarrizko jarrerak. Gu ote gara, bada, bereziak? Beharbada bestelako kexen antzutasunaren lezioa zerbaitegatik errazago ikasten da euskal ingurunean edo bereziki kooperatiba ingurunean, baina hain dira kontu unibertsalak eta oinarrizkoak jarrerari buruzko hauek... Zentroaren hautuan laburtzen da: besteak arduradun, ala norbera arduradun.

Bai, baliteke foroaren formatoak berak hori bultzatzea: "hona gatoz gure egoeraz ohartaraztera, kontuan har gaitzaten eta gure baztertzailleek presioa sentitu dezaten". Beharbada nahikunde hori nagusitzen delako ere gerta liteke diskurtso aldarrikatzaile-kexatiaren inflazio erabatekoa, baina kontua da hemen betikoa entzuten dela: eskubideen aipamena, kexa eta besteri ardura-eskatzea. Ezker-kultura baten errazkeria, musika sindikala, eskalea... munduko herri indigenen ordezkari guztien hamarkadetako diskurtso bihurtua.

Miss Liberty

Frantziak oparitu zion Estatu Batuetako herriari Miss Liberty, askatasunaren ikono erraldoia.

Badakigu zer egin duten Estatu Batuek askatasunaren gorazarrea gizarte-sistema bihurtuta. Humanitatearen alarde berdingabe hau, New York dekoratu paregabeko duen kapitalismoa.

Askatasun anderea neurotikoa eta hondatzailea izaten ahal baita, ahizpa luzaz falta duenean.

Lehenago entzun nuen talde batek proposatu zuela amerikarrek Frantziari pareko opari bat egitea, eta dirua biltzea *erantzukizunaren estatua* erraldoia Europan eraikitzeko. Miss Responsibility. Ona litzateke, etorkizuneko belaunaldien iruditerian askatasun andereak ez dezan inoiz bere ahizparen berririk gal.

Foro honetan ere lehenbizikoaren alaba gaztea (*Eskubide andereñoa*), izebaren berririk gabe dabil.

Hiru mezu

Gure herriaren ibilbidea lau hitzetan azaltzeaz gain, uste dut hiru mezu direla beste jatorrizko herriei agertu beharrekoak, munduko hizkuntzen egoera eta hemengo diskurtsoen norabide epela ikusita. Gazteleraz jarriko ditugu, ia gero beste hizkuntzetara nola itzultzen duten. *Un mensaje de alarma. Un mensaje de esperanza. Un mensaje de responsabilidad.*

Sinplea da ideien segida. 1) Jatorrizko herri gehienek hizkuntzak galbide larrian daude. 2) Posible da hizkuntzak biziberritzeko estrategiak abiarazten saiatzea. 3) Hizkuntza komunitateek, eskubideez mintzo den diskurtso 'indigena'tik apur bat haratago, beren kulturen benetako berreskurapenaren erantzukizuna hartu behar dute.

Premisa

Hiru mezuek, ordea, aurretik premisa bat barneratua izatea eskatzen dute: hizkuntzak direla kulturen muin eroaleak, kulturen bihotzak. Hizkuntza galtzen denean, jatorrizko herria galtzen dela bere nortasunaren ardatzari dagokionean. Geldi litezkeela ideiak, kosmobisio puskak, ohitura batzuk, folkorea... (antropologoentzat interesgarriak, turistentzat exotikoak, editoreentzat liburuak egiteko tentagarriak, lider 'indigenentzat' diruak eta proiektuak lortzeko marka baliagarriak) baina kultura hura galdu dela, hizkuntzak baitzuen biziartzen, ardatzen, esperesatzen, liseritzen. Euskaldunontzat, historiak erakutsi digunarekin, bistakoa da. Baina hemen premisa hori ez da ikusten bere larritasunean, ez dago erdian. Eta errealitatearen datuetan hizkuntzekin gertatzen ari dena, hoztasunez begiratuta ere, larria da.

Hori da datozen urteetako mezuen lehen lana, beste hiruetara iritsi baino lehen.

Itxaro

Estatu Batuetako ordezkariaren hitzaldiak arreta berezia sortu du. Arraza guztietako ehunka aurpegik burua bueltatuta begiratu diote hitzaldi osoan, bereziki Obama aipatzen hasi denetik. Bost minutuko jardunean zortzi bat aldiz aipatu du Obama, eta presidente berriak indigenen gaietan proposatu dituen aldaketak. Hunkitu egin nau apur bat, munduko botere handian egon litezken balizko aldaketek salako ehunka aurpegietan sortu duen arretazko

begiratuak. Esperantzarako egina ere badago gizakia, gero itxaropenek itxaromen bihurtu behar izaten badute ere.

Inperioaren sinfonia

Ibili, ibili. Pirinioetako mendi-aste batean adina ibili behar da New Yorkeen, hiriaren zaporea hartu nahi bada. Uptown, downtown. Central Park, eta Times Square, eta Wall Street, eta Little Italy, eta Chinatown eta Brooklin. Bakoitzak badu bere unibertsoa, hiritzarraren ekologia honetan.

Badu doinu bat gunek bakoitzak. Times Squarek kapitalismoaren sinfonia gorena jotzen du. Kapitalismoaren obra zoragarria. Sinfonia horren handitasuna apaltasunez entzuteko gai ote naiz, ni, kapitalismoaren minen indignazio etikotik borrokatzen den gerlari nimiño hau? Entzun ote dezaket arerio-inperioaren obra gorena, Wagnerren obra bat bailitzan, eta miresmenez gozatu? Baietxean nago.

Izan liteke miresgarri sinfoniaren aurrean txunditzea. Ez du zerikusirik, derrigor, bere sirena kantuari segitzearekin. Irudikatzen dut irrika orori uko egiten dion monje aszeta bat garapen erraldoiaren exhibizioa miresten. Alderantziz egiten du euskal progresistak: kapitalismoaren sinfoniaren kontra txirula jo gauean, eta goizean, egunerokoan, bere sirena kantua besarkatu.

Utz diezaiodan harrimenari apaltzen, zibilizazio baten eromen larrien eta zoramen ederren obraren aintzinean, gizateriaren sinfonia erraldoietako baten aurrean txundituz, Egiptoko piramideetan zibilizazio haren gomutan apalduko litzatekeen moduan.

Ibil nadin gero erreklamoen erdian oinak airean banitu moduan, eta aukera dezadan nire kontsumoaren eta irriken bidezidorra bi muturretan, monje aszetari eta euskal progresistari zeharka begiratu.

Goodbye

Wonderful city. Great humanty.

(testua zabalagoa da, baina hainbat zati kendu egin ditugu, eduki delikatuagoa zutelako. Osorik nahi duenak egileari eskatzeko aukera du).